

2025EKO ARABAKO TALENTUAREN ESTRATEGIAREN DEFINIZIOA ETA DISEINUA

Posted on 01/04/2025 by Naider

Category: [Albiste](#)

Tags: [Araba](#), [Berrikuntza ekosistema](#), [Talentuaren kudeaketa estrategikoa](#)

Euskampus Fundazioak, Euskadi ezagutzaren gizartearen nazioarteko abangoardian kokatzeko eragile bezala, Naiderrren laguntza izango du 2025eko Arabako Talentuaren Estrategia definitzeko eta diseinatzeko.

Ekimen honen helburu nagusia Arabako Lurralde Historikoko ekosistema indartzea da, pertsonen gaitasunak ekoizpen-ehunaren eskaerekin lerrotuz eta tokiko zein nazioarteko talentuarentzat ingurune erakargarria sustatuz. Hori lortzeko, Naiderrrek Arabako talentuaren egungo egoeraren diagnostikoa egingo du, nazioko eta nazioarteko praktika onenen azterketa egingo du, eta Talentuaren Estrategia diseinatuko du bere jarduera-planarekin batera.

Estrategia horrek ezarriko ditu Araban talentua erakartzea, garatzea eta atxikitzea bultzatzeko beharrezkoak diren helburuak, lan-ildoak eta proiektuak, eta funtsezko alderdiak bilduko ditu, hala nola prestakuntza, esparru akademikoaren eta enpresa-arloaren arteko lotura, eta berrikuntzaren sustapena. Proiektu honen bidez, Arabako hazkunde ekonomiko eta sozial iraunkorra bultzatzen lagunduko dugu, talentuaren kudeaketa estrategikoaren bidez.

